




CC 00
Kutzabank
atal
sindikala

Gurekin kontaktatu

94 4017024
943 001425
945 162455

ccoo@kutxabank.es
kutxabank@servicios.ccoo.es

<http://www.ccoo-servicios.es/kutxabank/>

Zk. 45 **2017** ko martxoa



Kutxabankeko II Hitzarmen Kolektiboa sinatzeko aurreakordioa iragartzen genuen egun berean, gure bankuaren antzik handiena daukan beste bankuak –Ibercajak– beste EEE-ERE bat iragarri zuen, eta bere bidez 160 bulego itxiko zituela. Inoren arazoak ikustea behar-beharrezkoa da geure hitzarmen kolektiboa bere neurri onean baloratzeko.

II
HITZARMEN
KOLEKTIBOA



Zerbitzuak



ENPRESA
BAT

...

PLANTILLA
BAT

Beste askotan ere gauza berbera esan izan dugu: **Kutxabankek daukan hitzarmena sektore osoan dagoenik eta onena da, beste barik.** Krisiak aurretik eraman izan ditu orain artean finantza-plantillek gozatzen zituzten baldintza gehienak, eta murrizketaz beteriko sasoi honetan, gure hitzarmenak eutsi egiten dio, galera bako egoeran. Eta **eduki ere hitzarmenik onena daukagu, plantillarik onena ere badaukagulako**, plantillarik konprometituena, Kutxabank proiektuan gehien sinesten duena, zuzendaritzak berak baino gehiago.

Enpresak iaz hitzarmena salatu eta horrekin isilbidezko luzapena saihestu zuen. Ondoren plantillarentzat onartezinak ziren demandak egin zituzten. Bere asmoa argia izan zen: negoziazioa luzatu eta epemugari itxaron, hitzarmena apurka-apurka desegiten hasteko.



Egoera honetan, CCOO eta PK sindikatuen “eten”-proposamenak zuzendaritzari sinistuarazi nahi izan zion plantillarekin ez zuela gatazkarik zabaltu behar. Hitzarmena indarrean edukitzeak ematen duen bakea beharrezkoa da plantillak eta zuzendaritzak elkarrekin lan egiteko, eta epe laburrean gure entitateak dauzkan erronkei aurre egiteko.

Jakin ondo dakigu **badela zer egin hobekuntzetan, eta hainbat arinen horiei ekin behar diegula**: segurantzak medikua, mugikortasun geografikoa, zerbitzu zentralak eta bulegoen sailkapena, pymeak, banku pertsonala, erakatzeko taldeak eta GAER, ebaluazioa, formakuntza, ... Ez dugu behar besteko adostasuna lortu beste aldekoekin (jakina denez, alde bien artekoa da hitzarmena: sindikatuak eta enpresa) eta gure aldarikapen batzuk baztertu genituen, zuzendaritzak ere beste batzuk bazterrean utz zitzen.



Aldi berean argi daukagu **hitzarmena sinatu barik ez dagoela soluziorik halako gaietan**. Lastima da enpresa honetan negoziazioa CCOO eta PK sindikatuak bakar-bakarrik asumitzen dutela. Beste taldeak, aitzakiak aitzaki, negoziatuetik kanpora kokatzen dira, eta hori drama bat da. Paperak guztiari eusten dio eta **erraza da zorrozatasuna erakustea suzko**

oharretan (normalean CCOO sindikatuaren kontrari, eta gutxienekoak zuzendaritzaren kontrari). Hitzarmenak hobekuntzarik ez dakarrela-eta, sinatu ez dela egingo esatea errealitatek kanpo bizitzea da, alboko entitatean hipster-bizarrak moztzen ez ikustea alegia. Eta kritika zorrotza egiten diguten bitartean, hitzarmena izateari etekina ateratzen diote. Hori zorte ederra beste sindikatuena CCOO eta PK sindikatuak negoziazio lanak egiten dituztela! **“Nire izenean ez” esan dezakete, eta batera gure lanari probetxua ateratzen diezaioke.**

Kritikak geureganatzen ditugu, eta segidan lanari heltzen diogu, egin barik geratu diren gaiak konpontzeko. Besteen aldean, CCOO sindikatukook negoziatzerakoan ez dugu aurreikuspen elektoralik egiten. Hitzarmena sinatzeak ez dakigu botorik eman ala kendu egingo digun. Kontzientzia oso-osoan egiten dugu, sina daitekeen hitzarmenik onena delakoan gaude-eta. Egin egiten dugu jarrera maximalistekin eta jendeari esanda zer entzun nahi duen konformatzen ez garelako, egon ere ez gaudelako botoen bila.



CCOO

**Ziurta ezazu
zure
Hitzamena**

Horregatik hona hemen **gure lanaren emaitza: Kutxabankeko II Hitzarmen Kolektiboa**. Sindikatu maioritarioa izanda, geure erantzukizuna onartzen dugu, eta plantillarik onenari, hitzarmenik onena eskaintzen diogu. Hurrengo orrialdeetan bere edukia zehatz-mehatz azalduko dizugu, eta betiko legez CCOO sindikatuko ordezkarien zure esanetara jartzen gara edozein kontsulta argitzeko.

Hemendik aurrera akordioaren edukian zehar begirada bat egingo dugu

Konpromisoa eta erantzukizuna

2017
Iraupena
2018

2017-2018. Tarteko epea, laburra dela uste izango duenik egongo da, baina egonkortasuna eskaintzen digu.

%0,75 (2017an) eta %1,25eko (2018an) taulen berrikusapena. Oinarrizko soldata, maila eta postuko osagarriak kontuan izanda, urtean 30.000€ baino gutxiago irabazten dutenek, 400€ko paga bakarra jasoko dute hitzarmena sinatu eta hurrengo hilebetean.

**Soldata
eguneratzea**

2017ko %0,75

2018ko %1,25

400€ < 30.000€

CCOO

Enplegua

80

Gutxienez, 2017an 80 lanpostu finko gutxienez.

- 10 hitzarmena sinatu eta hurrengo hilabetean
- Abuztuaren 1a baino lehen, beste 30 lanpostu gutxienez
- Azaroaren 30erako gutxienez beste 40.

2018rako enplegu beharizanak aztertu eta beraiei buruzko proposamenak egiteko Batzorde Paritarioa sortuko da.

XV maila**Urteko
22.000
euro**

Sarrera maila profesional berria, XV.a, **urteko 22.000 euroko soldatarekin**.

Enpresak hasieratik baldintzatu ditu enplegu finkoak maila berri honen sorrerarekin. Hasieran maila berri honentzako, urteko 15.000 euroko soldata planteatu zuen, eta hitzarmena sinatu izan ez balitz, automatikoki aplikatuko zukeen.

Salbuespen gisa, hitzarmena sinatu aurreko hiru hilabeteetan, edozein unetan, Kutxabanken XIV. mailan lanean aritutakoentzat, XIV. maila mantenduko da.

**Praktikaldietako
langileak**

XV. mailaren barruan sartuko dira.

Ordainsaria:

⇒ %82 lehen urtean

⇒ %90 bigarreanean

Aldi baterako kontratuentzat adostutako **gizarte onurak**, praktiketan kontratutako pertsonen ere **zabalduko zaizkie**.

Lanaldia

Ez da ezer aldatzen. Nabarmendu egiten dugu enpresak gure lanaldia zabaltzeko interesa izan duelako. Beraz, urtean 1.560 orduko lanaldia izango dugu, beraietatik 15 ordu derrigorrezko prestakuntzarako izango direnak.

Bizitza pertsonala eta profesionalaren bateratzea-Kontziliazioa.

- ▶ Berdintasun planeko hobekuntzak hitzarmen barruan sartzen dira:
- ▶ Urtean **20 ordu** kontziliaziorako.
 Erditze anizkoitzaren kasuan, alaba edo semearen lehen urtean 8 egun balioduneko baimenari, **2 egun baliodun gehituko** zaizkie bigarren alaba edo semearen ondoren jaiotzen den alaba edo seme bakoitzeko
- ▶ Umeen zaintzagatik arratsaldeko lanaldien murrizketak, adingabeak **8 urte** bete arte zabaltzen dira.



Iguala mediko kolektiboa

Plantilla osoarentzat iguala mediko kolektiboa berdintzea ez zetorren bat enpresaren asmoekin, eta ez da egon amore emateko prest. **CCOO sindikatuak ez du bere helburua bertan behera utzi**, mantendu baina. Egia da momentuz "baztertu" dugula akordio posible bat lortzekotan. Hauxe argitzea komenigarria da, sindikatu ez-sinatzaileen aldetik demogogia hutsa aireratuko baita.

Azterketa-batzorde bat sortuko da, hitzarmenaren indarraldian akordio batera heldu behar dena.

Akordio hau dela-eta, 300.000 eurora arte haundituko da Kutxacas-erako ekarpen ekonomikoa, eta momentuko eredu mediko-asistentzialerako bestelako aukerak baloratzeko azterketa-batzorde bat eratuko da.



Lehentasunezko itzultzeko eskubidea

Ez da gauza berria, **beti existitu izan da**. Fusiotik **sinatutako akordio guztietan CCOO sindikatuak mantendu izan du, integrazio akordietan ere bai**. Hitzarmenean araututako baldintzetan, berritu egiten da jatorrizko lurraldeetan bete gabeko lanpostuetara joateko lehentasunez itzultzeko eskubidea.

Lankide berrien kontratazioa dela-eta, jatorrizko lurraldeetara itzuli nahi duten lekuz aldatutako langileentzako, gestio operatibo eta komertzialeko lanpostuetara itzultzeko eskaerak egiteko prozesu bat irekiko da. Enpresak baloratuko du prozesu hau, bai jatorrizko lurraldean bete gabeko lanpostuen aldetik, bai eskatzaileak lanpostuen profilerako egokitasunetik.

Izendapenak

2017ko urtarrilaren 1eko datarekin, hitzarmen sinatzean **10 teknikari espezializatu izendatuko dira**.

Bestelakoak

Lan akordioan adostutako neurriak, hitzarmenaren aktari gehituko zaizkio, bertan adostutako baldintza eta helburuetan: borondatezko lanuzte sustatuak, borondatezko kontratu etenaldiak, jarduera-murrizketak.

Nork esango zukeen, hitzarmena negoziatzen hasi ginenean, gaur lasaitasunez beterik egongo ginatekeela? Apur bat lasaiago, behintzat, bai, izan ere hasiera oso gogorra izan zen: hasteko, enpresak berak salatu zuen aurreko hitzarmena; gero, kristoren besteko asmoak, urrun ere urrun sindikatuek onartzeko modukotik.

Geroagoko kontuak ere ez dira gure aldekoak izan. Sektoreko beste hitzarmen askok hilabeteetako negoziazioak behar izan zituzten, enpresek ez baitzuten sinatzeko interesik erakusten. Aurreraeragina edo ultraaktibitatearen luzapena adostu behar izan zen, nahiz eta honi askok eta askok garrantzirik ez eman. Baina enpresek jakin ondo dakite aurreraeraginak zer eskaintzen dien: **lehen ez zuten abantailazko egoera.**



Halan eta guztiz ere, gaur Kutxabanken akordioa eskuan daukagu. II. Hitzarmen Kolektiboa errealitatea da eta lasaitasun handia eskaintzen digu. Tarteko hitzarmena, esan nahi baduzu, bai, baina gure lan baldintzak mantetzen dizkiguna. **Ez enpresak ez guk ez ditugu gure etorkizunerako helburuak ahaztu, atzeratu baino ez.**

Halako sinadurak eskaintzen duen segurtasuna beharbada ez da baloratuko, baina **CCOO sindikatuaren lanari esker** lortu da, eta gehiengodun sindikatoa izanik bere lidergo erantzukizuna bere gain hartu du. Erosoena, ezer ez egitea da, batzuek egunero egiten duten bezala, beraien errepresentazio kuota hitzarmenari balioa eman edo ez egiteko erabakigarria ez dela jakitun direla.

CCOO sindikatuak ematen dien segurtasunari esker, dena eta denon kontrako mezu gogorra eta agresiboa mantentzeko era ematen die. Jendearen aurrean erakutsitako agresibitatea eta plantak..., baina, negoziazioetan bakoitzak bere maila erakutsi behar duenean, diren-diren bezalakoak agertzen dira: ikusi, entzun eta isilik egon, gero denaren errua besteei egotzi ahal izateko, guk geuk egiten dugunagatik eta beraiek egiten ez dutenagaitik.



Diru-bilketako administrazio atala (d.a.a.)
Uribitarte kalea, 4 - 48001 Bilbao
Tfnoa.: 94 424 34 24 - Faxe: 94 424 36 12
Helbide elektronikoa: mortega@euskadi.ccoo.es

A KODEA

Afiliazio Alta ☐
Datu Aldaketa ☐

CCOOn AFILIATZEKO ESKAERA ORRIA

DATU PERTSONALAK

N.A.N.-A.I.Z.	L	ABIZENAK	IZENA
BIDE M.	BIDEAREN IZENA, ATARIA ETA SOLAIRUA		POSTA KODEA
JAIOTEGUNA		HERRIALDEA/NAZIONALITATEA	SEXUA
TELEFONO FINKOA	TELEFONO MUGIKORRA	HELBIDE ELEKTRONIKOA	EUSKARA MAILA
			EZ
			BAXUA
			ERTAL
			ALTUA

DATU SINDIKALAK

AFILIAZIO FITXA	ALTAREN ARRAZOAIA	ALTAREN JATORRIA	LAN EGOERA
-----------------	-------------------	------------------	------------

ENPRESAREN DATUAK

ENPRESAREN I.F.Z.	GIZARTE SEGURANTZAKO ZKIA.	ENPRESA/LANTOKIAREN IZENA
BIDE M.	BIDEAREN IZENA. HERRIA	POSTA KODEA
ENPRESAREN JARDUERA NAGUSIA		FEDERAZIOA
LANTOKIKO TELEFONOA	KATEGORIA PROFESIONALA	HITZARMENA
		KONTRATU MOTA

KUDEAKETA DATUAK

KOBRATZEKO MODUA	KOD.	KOBRATZEKO LEHEN HILEA	KUOTA MOTA	KOD.	HILEKO ZENBATEKOAREN
ERAKUNDEAREN ZIGILU ETA SINADURA		BESTE DATU ETA OHAR BATZUK			

Izaera Pertsonaleko Datuen Babeserako Lege Organikoaren arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak CCOOren titulartasuneko fitxategi batetara erantsi direla. Fitxategi hau Konfederazioko, zure lantokia dagoen herriaren araberrako lurraldeko batasuneko, lan egiten duzun enpresako sektorearen araberrako federazioko, baita -kasu guztietan bezala- CCOOko Konfederazio Sindikaleko fitxategiekin osatuta dago. Horien guztien helburua zure datuen erabilerekin afiliaturekiko harremana mantentzea da. Zure datuetara sartu, hauek zuzendu, bertan behera utzi eta aurkakotasuna agertu dezakezu, NANaren fotokopiarekin goian aipatutako helbidera idatzi bat bidalita.

ZORDUNTZE ZUZENETAKO HELBIDERATZE AGINDUA SEPA

Helbideratze Agindu honen eskubidea sinatzearekin baimena ematen diozu (A) CCOO Diru-Bilketa Administrazio Atalari zeure finantza entitateari zure kontuan kargatzeko aginduak bidaltzeko eta (B) zure finantza entitateari dagozkion kopuruak zure kontuan kargatzeko CCOO Diru-Bilketa Administrazio Atalaren aginduen arabera. Zure eskubideen parte moduan, zure finantza entitatearekin hitzartutako kontratuko baldintza eta terminoekin bat eginda zure finantza entitateak egindako diru-itzulketa egiteko eskubidea daukazu. Diru-itzulketa hori zure kontuan kargatu denetik 8 asteko epe barruan eska dezakezu.

Zordunaren Datuak

Izena						
Helbidea						
	P.K.	Herria			Herrialdea	
Kontua	Iban	Entitat.	Sukursal.	KD	Kontua	SWIFT BIC
BANKU ENTITAREAREN IZENA					HELBIDEA	

Hartzekodunaren Datuak

Izena	CCOO UNIDAD ADMINISTRATIVA DE RECAUDACIÓN (UAR)					
	C/ CARACAS, 6 - 1º EXT. DERECHA. 28010 MADRID (ESPAÑA)					
Ordainketa m.	Aldizkakoa	Bakarra	Kontzeptua	Eskaera sinatu den herria		Data
	x		KUOTA SINDIKALA			

NAN edo AIZ

Sinadura